UAOaren 149.2. artikuluari jarraiki, akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.

De acuerdo con el art. 149.2 del ROP, la presente Acta se complementa con la grabación de las imágenes y audio de la sesión.

Honako hau da artxiboaren identifikazio kodea:

El fichero resultante se identifica con el siguiente código:

**9X0Hlxv1y6SYnpHeG2BmS+J3fy9sHfvwsjg3o/zCfeY=**

Grabazioa URL honetan aurki daiteke:

La grabación está disponible en la URL:

https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501

**HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN ETA ETXEBIZITZAREN BATZORDEA**
**2024ko MARTXOAREN 25ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**COMISIÓN DE MODELO DE CIUDAD, URBANISMO Y VIVIENDA**
**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE MARZO DE 2024**

**PARTAIDEAK / ASISTENTES:**

**BATZORDEBURUA/ PRESIDENTA:**
D. Raimundo Ruiz de Escudero Ezkurra jauna (EAJ-PNV)

**BATZORDEKIDEAK / VOCALES:**
Dª. Amancay Amets Villalba Eguiluz andrea (EH BILDU GASTEIZ)
Dª. Aitziber Salazar Arresti andrea (EH BILDU GASTEIZ)
D. Borja Rodríguez Ramajo jauna (PSE-EE)
D. Pascual Borja Borja jauna (PSE-EE)
D. Iñaki García Calvo jauna (PP)
Dª. Marta Alaña Alonso andrea (PP)
D. Iñaki Gurtubai Artetxe jauna (EAJ-PNV)
D. César Fernández de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV)
D. Óscar Fernández Martín jauna (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**IDAZKARIA / SECRETARIA:**
Dª. Ainara Mtz de Sabarte Agraz andrea

**BERTARATUTAKO BESTE ZENBAIT/ OTROS ASISTENTES:**

**En el turno popular/Herritar txandan: el Sr. G.P.L., la Sra. A.S.R y el Sr. A.M.V en nombre de la asociación vecinal Zazpigarren Alaba-Babestu Araba auzo elkartearen izenean G.P.L. jauna, A.S.R andrea eta A.M.. jauna.**

La Directora General de Urbanismo Dª Susana Vizcarra andrea Hirigintzaren zuzendari orokorra.

Udaletxean, 2024 martxoaren 25ean, goizeko 9:04an.

En la Casa Consistorial, a las 09:04 horas del día 25 de marzo de 2024.

| Gertakari hauen berri ematen da: | Se hacen constar las siguientes incidencias: |
|---|---|
| 9:12an López de Uralde and. (PSE-EE) sartu da. | 9:12 la Sra. López de Uralde (PSE-EE) entra. |
| 9:29an Ruiz de Larramendi jn (EH BILDU GASTEIZ) sartu da. | 9:29 el Sr. Ruiz de Larramendi (EH BILDU GAZTEIZ) entra. |
| 9:29an herritar txandaren parte hartzaileak irten dira. | 9:29 los participantes del turno popular salen. |
| 9:31n López de Uralde and. (PSE-EE), Borja jn. (PSE-EE), Ruiz de Larramendi jn. (EH BILDU GASTEIZ), eta García jn. (PP) irten dira | 9:31 la Sra. López de Uralde (PSE-EE), el Sr. Borja (PSE-EE), el Sr. Ruiz de Larramendi (EH BILDU GASTEIZ), y el Sr. García (PP) salen. |
| 9:40an Domaica and. (PP) irten da. | 9:40 la Sra. Domaica (PP) sale. |
| 9:51n Alaña and. (PP9 irten eta sartu da. | 9:51 la Sra. Alaña (PP) entra y sale. |
| 10:02an Salazar and. (EH BILDU GASTEIZ) irten da. | 10:02 la Sra. Salazar (EH BILDU GASTEIZ) sale. |
| 10:08an Alaña and. (PP) irten da. | 10:08 la Sra. Alaña (PP) sale. |

**1. GAIA:** **2024KO MARTXOAREN 11N EGINDAKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA.**

**Nº 1 ASUNTO:** **LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 11 DE MARZO DE 2024.**

| Baiespenez onartu da. | Se aprueba por asentimiento. |
|---|---|

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501?ts=5

**2. GAIA:** **ZAZPIGARREN ALABA-ARABA BABESTU AUZO-ELKARTEAK 2024KO MARTXOAREN 8AN ESKATUTAKO HERRITARREN TXANDA, HAPOREN HASIERAKO ONESPENAREN INGURUAN HAINBAT AUZO-ELKARTEK AURKEZTUTAKO IRADOKIZUN, ALTERNATIBA ETA ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO ESKATZEKO.**

**Nº 2 ASUNTO:** **TURNO POPULAR SOLICITADO POR LA ASOCIACIÓN VECINAL ZAZPIGARREN ALABA-ARABA BABESTU EL DÍA 8 DE MARZO DE 2024, PARA QUE SE CONTESTE A LAS SUGERENCIAS, ALTERNATIVAS Y ALEGACIONES PRESENTADAS POR VARIAS ASOCIACIONES VECINALES EN RELACIÓN A LA APROBACIÓN INICIAL DEL PGOU.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501?ts=16

G.P.L. jaunak Zazpigarren Alaba-Babestu Araba auzo elkartearen izenean hartu du hitza.

El Sr. G.P.L. interviene en nombre de la asociación vecinal Zazpigarren Alaba-Babestu.

**3. GAIA: BEHIN BETIKO ONESTEA ZABALGANEKO "MARITURRI" 6. SEKTOREKO RU 05 LURZATIAREN XEHETASUN-AZTERKETA.**

**Nº 3 ASUNTO: APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA RU 05 DEL SECTOR 6 "MARITURRI" DE VITORIA-GASTEIZ.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501?ts=1564

**ERABAKI-PROPOSAMENA**

2022ko uztailaren 18an sartu zen Gasteizko Udalaren Erregistroan Gasteizko Mariturri 6. sektoreko RU.05 lurzatiaren xehetasun-azterketaren proiektua.

Udal zerbitzu teknikoek dokumentua zuzentzeko beharra ikusi zuten. 2023ko irailaren 8an erregistratu zen Gasteizko Udalean xehetasun-azterketaren beste bertsioa, eta Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion 2023ko urriaren 6an.

Erabakiaren xedapen-zatia 2023ko urriaren 11n argitaratu zen El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan, eta 2023ko urriaren 20an, ALHAOn (124. zk.).

Jendaurreko erakustaldian ez zen alegaziorik aurkeztu.

Xehetasun-azterketa honen xede den lurzatia "Mariturri" 6. sektorearen eremuan dago. Dagokion plan partzialak arautzen du sektore hori —zeina 2002ko abuztuaren 2an behin betiko onetsi eta 2002ko irailaren 9ko ALHAOn (102. zk.) argitaratu baitzen—, baita plan partzialaren geroko aldakuntzek ere.

Xehetasun-azterketaren xedea da "Mariturri" 6. sektoreko RU.05 lurzatian Plan Partzialaren 7. aldaketak (2009ko ekainaren 19ko ALHAO, 70. zk.) baimentzen duen gehieneko etxebizitza-kopurua egitea. Horretarako, etxebizitza kolektiboko bloke txikien eraikuntza-tipologia hartu behar da, RU.05 lurzatirako hirigintza-

**PROPUESTA DE ACUERDO**

El 18 de julio de 2022 tuvo entrada en el Registro del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz el proyecto de Estudio de Detalle de la parcela RU.05 del Sector 6 Mariturri de Vitoria-Gasteiz.

Los servicios técnicos municipales advirtieron la necesidad de realizar subsanaciones al documento. Con fecha 8 de septiembre de 2023 se registró en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz la versión del estudio de detalle que fue aprobada inicialmente por la Junta de Gobierno Local el 6 de octubre de 2023.

La parte dispositiva del acuerdo fue publicada el 11 de octubre de 2023 en el Correo (Edición Álava) y en el Diario de Noticias de Álava, y en el BOTHA nº 124 de 20 de octubre de 2023.

Durante el periodo de exposición pública no se recibió ninguna alegación al respecto.

La parcela objeto de este estudio de detalle está situada en el ámbito del Sector 6 "Mariturri". Este sector está regulado por su correspondiente Plan Parcial aprobado definitivamente el 2 de agosto de 2002 y publicado en el BOTHA nº 102 del 9 de septiembre de 2002, y sus posteriores modificaciones.

El objeto del Estudio de Detalle es posibilitar realizar en la parcela RU.05 del Sector 6 de "Mariturri" el número máximo de viviendas permitidas por la 7ª modificación del Plan Parcial (BOTHA nº 70 de 19 de junio de 2009). Para ello, se requiere adoptar la tipología de construcción de pequeños bloques de vivienda colectiva, modificando así parámetros

parametroak aldatuz.

Zehazki, parametro hauek aldatzen dira:

- Solairu-kopurua: B+2+A.
- Erlaitzerainoko gehieneko altuera: 9,85 m.
- Sakonera eraikigarria: librea.
- Sestra azpiko gehieneko okupazioa: % 75.
- Sestra gaineko gehieneko okupazioa: % 50.
- Lurzati-elkarketa berria:

Sei lurzati-elkarketa egingo dira. Lehenengo elkarketan, gehienez hamahiru etxebizitza eraiki ahal izango dira, eta zatikatzeko aukera utziko da: 1.1 elkarketan, 6 etxebizitza gehienez, eta 1.2 elkarketan, 7 etxebizitza gehienez. Hurrengo lau elkarketetan (2, 3, 4 eta 5 elkarketak), gehienez sei etxebizitza egin ahalko dira, eta azken elkarketan (6 zenbakiduna), bost etxebizitza gehienez.

Eraiki gabeko elkarketarik ez uzteko, horietako bakoitzerako 500 $m^2$-ko gutxieneko azalera eraikigarria ezarri da, eta etxadiaren gehieneko eraikigarritasuna 4.500 $m^2$-koa izango da guztira.

Dosierraren tramitazioan, Aireportu eta Aire Nabigazioko Zuzendariordetza Nagusiaren txostena jaso zen —2024ko otsailaren 26an erregistratua—, zeina xehetasun-azterketaren aldekoa baita zortasun aeronautikoei dagokienez, betiere proposatutako eraikuntzek, instalazioek edo landaketek edo objektu finko edo mugikorrek (zutoinak, antenak, kartelak, aerosorgailuak, palak barne, etab.) eta bide-azpiegituren galiboek zortasun aeronautikoak urratzen ez badituzte. Txosten horretan adierazten da, halaber, dokumentazioan sartu behar dela Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen arau-planoa, eta gomendatzen da plangintza-dokumentuan eguneratzea araudiari buruzko erreferentziak, 369/2023 Errege Dekretuak sartutako aldaketen arabera.

2024ko martxoaren 4an, sustatzaileak xehetasun-azterketaren azken bertsioa aurkeztu zuen Udalaren Erregistroan, Abiazio Zibilaren txostenean adierazitako eransketekin, behin betiko onets dadin. Hori da hasieran onetsitako dokumentuarekiko alde bakarra, eta ezin da haren funtsezko aldaketatzat hartu.

Azkenik, 2024ko martxoaren 13an, Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua

urbanísticos para la parcela RU.05.

En concreto se modifican los siguientes parámetros:

- Nº de plantas B+2+A.
- Altura máxima a cornisa: 9.85 m.
- Fondo edificable: libre.
- Ocupación máxima bajo rasante: 75%.
- Ocupación máxima sobre rasante: 50%.
- Nueva agrupación de parcelas:

Se realizan seis agrupaciones de parcelas. En la primera, se permite construir hasta trece viviendas, con la posibilidad de realizar una subdivisión de la misma (Agrupación 1.1, 6 viviendas como máximo y Agrupación 1.2, 7 viviendas como máximo), en las cuatro siguientes (Agrupación 2, 3, 4 y 5) hasta seis viviendas y en la última agrupación, la número 6, se permite construir hasta cinco viviendas.

Con el objeto de no dejar ninguna agrupación sin edificación se establece un mínimo de 500 $m^2$ de superficie edificable para cada una de ellas, siendo la edificabilidad máxima total para la manzana de 4.500 $m^2$.

En la tramitación del expediente, se ha recibido el informe de la Dirección General de Aviación Civil, registrado el 26 de febrero de 2024, favorable en lo que a servidumbres aeronáuticas se refiere, siempre y cuando las construcciones, instalaciones o plantaciones propuestas u objetos fijos o móviles (postes, antenas, aerogeneradores incluidas sus palas, carteles, etc.), así como el gálibo de las infraestructuras viarias no vulneren las servidumbres aeronáuticas. También se indica en el ese informe la necesidad de incorporación a la documentación del plano normativo de Servidumbres Aeronáuticas del Aeropuerto de Vitoria y se recomienda actualizar en el documento de planeamiento las referencias a la normativa, conforme a los cambios introducidos por el Real Decreto 369/2023.

El 4 de marzo de 2024 el promotor presentó en el Registro del Ayuntamiento la última versión del Estudio de Detalle para su aprobación definitiva, con las incorporaciones señaladas en el informe de Aviación Civil. Esta incorporación es la única diferencia con el documento aprobado inicialmente, y no es susceptible de ser considerada una modificación sustancial del mismo.

Finalmente, con fecha 13 de marzo de 2024 se ha emitido informe técnico favorable por

Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak aldeko txosten teknikoa egin du, non ondorioztatzen baitu xehetasun-azterketa Udalbatzaren osoko bilkuran aurkez daitekeela, hark behin betiko onets dezan.

Arquitecta del Servicio de Planeamiento y ejecución de la ordenación urbanística concluyendo que cabe someter el Estudio de Detalle a la aprobación definitiva por el Pleno de la Corporación.

2023ko irailaren 14ko eta 2024ko martxoaren 11ko txosten teknikoetan jasotakoaren arabera, xehetasun-azterketa honetan aurkeztutako proposamenaren hirigintza-parametroek ez dituzte urratzen 2023ko otsailaren 7an hasieran onetsitako HAPO berriaren hirigintza-zehaztapenak (2023ko otsailaren 8ko ALHAO, 16. zk.).

Los parámetros urbanísticos de la propuesta presentada en el presente estudio de detalle no contravienen las determinaciones urbanísticas del nuevo PGOU aprobado inicialmente el 7 de febrero de 2023 (BOTHA nº 16 de 8 de febrero de 2023), según consta tanto en el informe técnico de 14 de septiembre de 2023 como en el de 11 de marzo de 2024.

Azaldutako aurrekariak kontuan izanik, beharrezkoa da arau hauek aintzat hartzea:

Teniendo en cuenta los antecedentes mencionados, es necesaria la consideración de la siguiente regulación:

Xehetasun-azterketak Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean araututa daude.

Los estudios de detalle están regulados en la Ley 2/2006 del Suelo y Urbanismo del País Vasco.

Lege-arau horrek 60. artikuluan adierazten duenez, tresna horiek hirigintza-antolamendu xehatua ezartzen laguntzen dute, eta 73. artikuluan zehazten duenez, haren xedea da antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzea edo egokitzea edozein lurzoru-motatan, eta xehetasun-azterketen bidez justifikatu beharko da hura osatzeko edo egokitzeko beharra edo komenigarritasuna, plangintzan aurreikusita ez badago.

Esta norma legal en su artículo 60 indica que contribuyen al establecimiento de la ordenación urbanística pormenorizada, precisando en el artículo 73 que su objeto es completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en cualquier clase de suelo y que la necesidad o conveniencia de la complementación o adaptación deberá justificarse por los propios estudios de detalle, cuando su redacción no esté prevista por el planeamiento.

73. artikuluaren 3. apartatuak zehazten duenaren arabera, xehetasun-azterketek ezin dituzte inola ere kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezartzen dituen aurreikuspenak urratu, edo horiei kasurik ez egin. Era berean, ezin izango dute lurzoruaren xedea aldatu, hirigintza-eraikigarritasuna handitu, ezta plangintzan ezarritako bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo murriztu ere, aurreko apartatuko b) letran xedatutakoari kalterik egin gabe.

En este artículo 73, apartado 3 se determina que estudios de detalle en ningún caso pueden infringir o desconocer las previsiones que para su formulación establezca el planeamiento correspondiente. Asimismo, tampoco pueden alterar el destino del suelo, incrementar la edificabilidad urbanística ni suprimir o reducir viales o dotaciones públicas establecidas en el planeamiento, sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b) del apartado anterior.

Xehetasun-azterketen edukia zein agiritan formalizatu behar den, berriz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 74. artikuluan xedatzen da.

Los documentos en los que ha de formalizarse el contenido de los estudios de detalle se fijan en el artículo 74 de la Ley 2/2006.

Legearen 98. artikuluak zehazten du nola izapidetu eta onetsi behar diren xehetasun-azterketak: hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarri behar dira hogei egunez, eta ondoren Udalari dagokio xehetasun-azterketak behin betiko onestea.

En el artículo 98 de esta Ley se recoge la tramitación y aprobación de estudios de detalle, indicando que una vez aprobados inicialmente y sometidos a información pública durante veinte días, corresponde al ayuntamiento la aprobación definitiva de los estudios de detalle.

Bestetik, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6.2 artikuluak salbuetsi egiten ditu xehetasun-azterketak ingurumen-ebaluazio estrategikoa egitetik.

Por su parte, el Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de Regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística excepciona en su artículo 6.2 a los estudios de detalle del sometimiento a la evaluación ambiental estratégica.

Behin betiko onespena emateko eskumena duen organoari dagokionez, Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespena ematea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 123.1.i) artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Respecto al órgano competente para la aprobación definitiva, el artículo 123.1.i) de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local atribuye al Pleno la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística.

Proposatzen den xehetasun-azterketarekin bat etorriz, dosierraren parte diren hirigintzako agiriek haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, aipaturiko legeak kontuan harturik, eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak 122.4.a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, Hiri Ereduaren, Hirigintzaren eta Etxebizitzaren Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

De conformidad con el estudio detalle propuesto, cuya conveniencia y oportunidad se justifican en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vista la regulación a la que se ha hecho referencia, esta Comisión de Modelo de Ciudad, Urbanismo y Vivienda, en virtud de las competencias atribuidas en el artículo 122.4.a) de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local eleva al Pleno de la Corporación el siguiente:

## ERABAKIA

1.- Behin betiko onestea Gasteizko "Mariturri" 6. sektoreko RU 05 lurzatiaren xehetasun-azterketa, 2024ko martxoaren 4an aurkeztutako dokumentuaren bertsioarekin bat etorriz, zeina dosierrean jaso baita.

2.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Araban zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5 artikuluan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitakoaren ildotik.

3.- Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluarekin bat etorriz.

## ACUERDO

1.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle de la parcela RU 05 del Sector 6 “Mariturri” de Vitoria-Gasteiz, de conformidad con la versión del documento presentada el 4 de marzo de 2024 que consta en el expediente.

2.- Publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en el diario o diarios de mayor difusión de Álava en los términos previstos en el artículo 89.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y el artículo 7 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

3.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo puede interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación, conforme al artículo 46.1 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

**OSOKO BOZKETA**

GASTEIZKO "MARITURRI" 6. SEKTOREKO RU 05 LURZATIAREN XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN-BETIKO ONESPENA EMATEA, aurkeztutako erabaki-proposamenaren ildotik.

Honako boto hauekin **ONARTU DA:**

**ALDE (8):**

Rodríguez Ramajo jn. (PSE-EE)
Borja Borja jn. (PSE-EE)
López de Uralde Gómez and.(PSE-EE)
Gurtubai Artetxe jn. (EAJ-PNV)
Ruiz de Escudero Ezkurra jn. (EAJ-PNV)
Fernández de Landa Manzanedo jn. (EAJ-PNV)
García Calvo jn. (PP)
Alaña Alonso and. (PP)

**ABSTENTZIOA (4):**

Villalba Eguiluz and. (EH BILDU GASTEIZ)
Salazar Arresti and. (EH BILDU GASTEIZ)
Ruiz de Larramendi Arana jn. (EH BILDU GASTEIZ)
Fernández Martín jn. (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**VOTACIÓN DE TOTALIDAD**

APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LA PARCELA RU 05 DEL SECTOR 6 "MARITURRI" DE VITORIA-GASTEIZ, en los términos de la propuesta de acuerdo presentada.

**APROBADA** con los siguientes votos

**A FAVOR (8):**

Sr. Rodríguez Ramajo (PSE-EE)
Sr. Borja Borja (PSE-EE)
Sra. López de Uralde Gómez (PSE-EE)
Sr. Gurtubai Artetxe (EAJ-PNV)
Sr. Ruiz de Escudero Ezkurra (EAJ-PNV)
Sr. Fernández de Landa Manzanedo (EAJ-PNV)
Sr. García Calvo (PP)
Sra. Alaña Alonso (PP)

**ABSTENCIÓN (4):**

Sra. Villalba Eguiluz (EH BILDU GASTEIZ)
Sra. Salazar Arresti (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Ruiz de Larramendi Arana (EH BILDU GASTEIZ)
Sr. Fernández Martín (ELKARREKIN PODEMOS /EZKER ANITZA-IU/EGUO BERDEAK/ALIANZA VERDE)

**4.**
**GAIA:** **PP UDAL TALDEAK 2024KO MARTXOAREN 24KO BATZORDEKO GALDE-ESKEEN ATALEAN AHOZ EGINDAKO GALDERA, AZKEN MILIAKO BANAKETARAKO GUNE MIKROLOGISTIKOAZ.**

**Nº 4**
**ASUNTO:** **PREGUNTA ORAL FORMULADA POR EL GRUPO MUNICIPAL PARTIDO POPULAR EN EL APARTADO "RUEGOS Y PREGUNTAS" DE LA SESIÓN DE 11 DE MARZO DE 2024, SOBRE EL "HUB MICROLÓGISTICO PARA REPARTO DE ÚLTIMA MILLA".**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501?ts=1719

*PARTIDO POPULAR udal taldeak Hiri Ereduaren Hirigintzan eta Etxebizitzaren Batzordearen 2024ko martxoaren 11ko*

*Pregunta formulada por el grupo municipal PARTIDO POPULAR en el apartado "Ruegos y preguntas" de la*

*bilkurako galdeeskeen atalean ahoz egindako galdera. UAOaren 141. art.*

*sesión del 11 de marzo de 2024 de la Comisión de Ciudad, Urbanismo y Vivienda. Art. 141 del ROP .*

*Alaña andreak (PP) Hiri Eredu, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumen Saileko zinegotzi ordezkariari galdetu dio "Azken miliako banaketa jasangarrirako HUB mikrologistikoari" buruz: zein izan diren Pintor Vera Fajardo kalean banaketa-espazio berria hautatzeko irizpideak; zein izango den inguruko trafikoaren intentsitatea; espazio publikoan obrak beharko diren, eta, hala badagokio, zenbatekoa eta noiz lizitatuko diren; auzoko elkarteekin harremanetan jarri den proiektua ezagutarazteko.*

*La Sra. Alaña (PP) pregunta al concejal delegado del Departamento de Modelo de Ciudad, Urbanismo, Vivienda, Limpieza y Medio Ambiente sobre el "Hub micrológistico para reparto de última milla": cuáles han sido los criterios para seleccionar el nuevo espacio de reparto en la calle Pintor Vera Fajardo; cuál va a ser la intensidad del tráfico en la zona; si van a ser necesarias obras en el espacio público, y en su caso, cuál sería su importe y cuándo se van a licitar; si se ha contactado con las asociaciones del barrio para darles a conocer el proyecto.*

**5.**
**GAIA:** **EH BILDU GASTEIZ TALDEAK 2024KO MARTXOAREN 15EAN AURKEZTUTAKO GALDERA, TRENBIDEAREN INTEGRAZIOARI BURUZKO AZTERLAN INFORMATIBOAREN INGURUMEN-ERAGINAREN DEKLARAZIOAZ.**

**Nº 5**
**ASUNTO:** **PREGUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU GASTEIZ, PRESENTADA EL 15 DE MARZO DE 2024, SOBRE LA FORMULACIÓN DE LA DECLARACIÓN DE IMPACTO MEDIOAMBIENTAL DEL ESTUDIO INFORMATIVO DE INTEGRACIÓN FERROVIARIA.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501?ts=2769

*EH Bildu Gasteiz udal taldetik hurrengoa jakin nahi dugu:*

*Zein da udal-gobernuaren balorazioa, hiri-ereduaren ikuspegitik, trenbide-integrazioaren azterlan informatiboaren ingurumen-eraginaren deklarazio-formulazioaz?*

**6.**
**GAIA:** **PP UDAL TALDEAK 2024KO MARTXOAREN 15EAN AURKEZTUTAKO GALDERA, 2019AN ERAIKUNTZAREN KODE TEKNIKOA ALDATU AURRETIK INGURATZAILEETAN EGINDAKO OBREZ.**

**Nº 6**
**ASUNTO:** **PREGUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL PARTIDO POPULAR, PRESENTADA EL 15 DE MARZO DE 2024, SOBRE LAS OBRAS DE ENVOLVENTES REALIZADAS CON ANTERIORIDAD A LA MODIFICACIÓN DEL CÓDIGO TÉCNICO DE LA EDIFICACIÓN EN 2019.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501?ts=3464

*El Código Técnico de la Edificación o CTE que establece las exigencias en materia de seguridad que deben cumplir los edificios y su habitabilidad (seguridad estructural, seguridad contra incendios, salubridad, protección frente al ruido, ahorro de energía) fue actualizado en diciembre de 2019. Según los datos de que dispone el Departamento de Urbanismo de la tramitación de los expedientes de concesión de licencias y finales de obra, se formulan las siguientes preguntas.*

*¿Hay en Vitoria edificios cuyas obras de envolventes se realizaron con criterios y materiales anteriores a la modificación de dicho Código Técnico de la Edificación? En tal caso, ¿cuántos edificios y viviendas se encuentran en la actualidad en dicha situación respectivamente?*

**7.**
**GAIA:** **GALDE ESKEAK: 3. TXANDA.- EH BILDU GASTEIZ / ELKARREKIN / PP.**

**Nº 7**
**ASUNTO:** **RUEGOS Y PREGUNTAS: TURNO 3.- EH BILDU GASTEIZ / ELKARREKIN / PP.**

**Gaira jotzeko esteka / Enlace al asunto:**
https://sesiones.vitoria-gasteiz.org/sesiones/SP_VAS_ALAP0106800F0.23CURB.2024032501?ts=4001

| | |
|---|---|
| Ez dago. | No hay. |
| Bukatutzat eman da bilkura, 10:11n. neuk, idazkariak, hala egiaztatzen dut. | Se levanta la sesión, siendo las 10:11 horas del día de la fecha, de todo lo que yo, la Secretaria, doy fe. |